

Fundación
BBVA

**X. Musika Garaikideko
Konzertu Zikloa**

Bilbao
2019-2020

Bilbao Sinfonietta

Fundación BBVA
San Nikolas Eraikina
Bilbao

2019
15
URR



BBVA Fundazioa

BBVA Fundazioak ezagutza zientifikoaren eta kultura-sorkuntzaren inguruan antolatzen du bere jarduera. Alde horretatik, gizarteak musikaren arte-adierazpena eskuratzen duen modu desberdinetatik barrena egindako ibilbide osatu baten antzera antolatzen du bere Musika egitaraua. Era horretan, obra berrien sorkuntza sustatzen du konposizio-enkarguen bidez, eta horiek zaintzea eta ezagutaraztea ahalbidetzen du punta-puntako zigilu eta interpreteekin elkarlanean egindako grabazioen bitartez. Zuzeneko musika sustatzen du urteko kontzertu-zikloen bidez, eta doakoak direnez, gaur egungo errepertorioan erreferentzia bilakatu diren ensemble eta bakarlariek jartzen ditu publikoaren esku. Hitzaldi-zikloak antolatzen ditu eta hainbat argitalpen kaleratzen ditu egileen, instrumentujotzaileen eta zuzendarien lana hobeto ulertzeko, edota konposizio-aldi jakin batzuen azterketan sakontzeko.

Musikari gazteen heziketa sustatzen du Reina Sofía Musikako Goi Eskolarekin garatzen dituen programei esker, eta ikertzeko, musika-ondarea berreskuratzeke eta sorkuntza-lan guztiz berritzaileak burutzeko proiektuak garatzen ditu Musika eta Opera arloko Leonardo Beken bidez.

Orkestren kudeaketari buruzko jardunaldi espezializatuak antolatzen ditu; estatu osoko opera-antzoki eta musika-egitura nagusiekin elkarlanean dihardu —hala Teatro Realekin nola Gran Teatre del Liceurekin, baina baita Madrilgo Orkestra Sinfonikoarekin eta Operaren Lagunen Bilboko Elkartearekin ere—, eta horiei esker, goi mailako kontzertuak eta opera-programak eskaintzen ditu; eta bikaintasuna aitortzen du Musika eta Opera alorreko Ezagutzaren Mugak BBVA Fundazioaren Sariaren bitartez eta Espainiako Orkestra Sinfonikoen Elkarte-BBVA Fundazioaren Konposizioaren Sariaren bitartez.



Fundación **BBVA**

Interpreteak

Bilbao Sinfonietta

Isabel Souto, flauta
Laura Marcos, oboea
Javier Roldán, klarineta
Alfonso Gómez, pianoa
Enekoitz Martínez, biolina
Lander Echevarría, biola
Teresa Valente, biolontxelo

Iker Sanchez Silva, zuzendaria

Elisa di Prieto, sopranoa

Programa

LEHEN ZATIA

Mikel Iturregi (1997)
De cheminer loin

Félix Ibarondo (1943)
Azul y Llama

Brais Nóvoa Loira (1987)
*Hilando reflejos**

BIGARREN ZATIA

Pierrot Rewrite (aukeraketa):

Mikel Chamizo (1980)
Valse de Chopin

Guillermo Lauzurika (1969)
Supplique

Hilario Extremiana (1958)
Nostalgie

Arnold Schönberg (1874-1951)
Pierrot lunaire, op. 21

* Erabateko estreinaldia. BBVA Fundazioaren enkargua

Zikloaren koordinazioa

Gabriel Erkoreka

Programarako oharrak

Bilbao Sinfoniettak gaur aurkeztuko duen egitarauak euskal musikaren belaunaldi arteko espektro zabala hartzen du. Félix Ibarondo dekanoarekin eta Mikel Iturregi gaztearekin batera —berrogeiko hamarkadan jaioa bata eta XXI. mendearen atarian bestea—, tarteko belaunaldi guztietako ordezkariak izango ditugu: berrogeita hamarreko hamarkadakoak (Extremiana), hirurogeiko hamarkadakoak (Lauzurika) eta lauurogeiko hamarkadakoak (Chamizo eta Nóvoa). Horiekin guztiekin, garai horietako guztietako abangoardiako musikaren erreferente ukaezin gisa, Arnold Schönberg handiaren figura ere topatuko dugu, haren lan karismatikoa eta iraultzaileenetako baten bidez: *Pierrot Lunaire*. Horrekin zuzenean lotuta daude entzungo ditugun gainerako obretako batzuk.

Programa osatzen duen egile gazteenak abiatuko du emanaldia, Mikel Iturregi bizkaitarrak. Konposizioko ikasketak duela hilabete batzuk amaitu ditu Musikenen, Gabriel Erkorekaren tutoretzapean, baina dagoeneko egiten ari da bere lekua euskal musikaren zirkuituan. Aipatutako ikastegian, Iturregik zenbait konpositorerengandik jaso ahal izan zituen maisu-eskolak, besteak beste, hauen eskutik: Peter Eötvös, Helmut Lachenmann, Mauricio Sotelo, Francisco Filidei eta Alberto Posadas. Horiek guztiek ugaritu egin zituzten dagoeneko oso itxuratuta dagoen eta

tinbrearen inguruan esperimentatzeko zaletasun markatua duen estilo baten aukerak. Ildo horretatik, Iturregik, klasiko handiez gain, Gérard Grisey, Helmut Lachenmann edo Salvatore Sciarrino aipatzen ditu, besteak beste, bere erreferenteen artean.

2018. urtean *De cheminer loin* idatzi zuen, eta 2019ko martxoan estreinatu zen Musikenen, ikastegiko Sinfoniettaren eskutik. Baina estreinaldiaren ondoren ere, ibilbide azkarra egiten ari da obra; izan ere, pare bat hilabete geroago, Ensemble Kuraiak berriro eskaini zuen Errenteriako Musikaste jaialdian, eta gaur gaueko kontzertuko erreperatorioan barne hartu du Bilbao Sinfoniettak. Izan ere, *De cheminer loin* (Urrutira ibili) oso konposizio sendoa da, eta, izenburuak islatzen duenez, soinu-manu tradizional jakin batzuetatik urruntzea proposatzen du, esperimentalagoak diren beste batzuetara hurbiltzeko. Flauta, klarinete, biolin, biolontxelo eta pianorako idatzitako lan honek, lehendabiziko konpasetan, ohikotzat jo daitezkeen sonoritateak erakusten ditu; baina, berehala, zaratatik hurbil dauden soinu-latitudeetara jotzen du.

Félix Ibarrondoren *Azul y Llama* lanak bi soinu-eremu oso zehaztutan kokatzen gaitu: Ibarrondorenean, nor 1970eko hamarkada bukaeratik erabat definituta daukan haren unibertso musikala,

eta Olivier Messiaenengan. Haren jaiozaren mendeurrenean omenaldi gisa sortu zuen partitura hau Ibarrondok, BBK Fundazioaren eta Laboratorio de Interpretación Musicalen (LIM) enkar-guz. Pieza hau, beste egile batzuen lanekin batera, 2008an estreinatu eta grabatu zuen LIMek, Jesús Villa-Rojoren zuzendaritzapean; eta berriro interpretatu zuten bai Enigma Taldeak 2011n Zaragozako Auditorioan, bai Krater Ensemblek 2013an, Bilbao Sinfoniettako zuzendari artistiko Iker Sanchez Silvaren zuzendaritzapean.

Azul y Llama lanak Ibarrondok sortu-tako musikaren espirituari fidel eusten badio ere, oñatiarrak maileguz hartu-tako Messiaenengatik bereizgarria dario konposizioari: pianoaren nagusitasuna. Messiaenengatik bereizgarria zati handi batean funtsezko tresna da pianoa, hala solista gisa nola sortze-lan askotan erabili ohi zituen konbinazio instrumental bitxiei batasuna ematen dien tinbre-elementu gisa. Ibarrondok pianorako kontzertu txiki gisa planteatzen du *Azul y Llama*, argi zehazten baitu «piano batek eta 6 musika-tresnak» interpretatu beharreko lana dela: flauta, oboea, klarineta, biolina, biola eta biolontxelo. Piano-idazkera hiperaktiboak Messiaenengatik teklatuari ematen zion perkusiozko tratamendua dakarkigu gogora, eta idazkera homofonikoak ere maisu frantsesa dakarkigu gogora, obraren hasieran sei tresnak blokean

bilduta aurkezten direnean. Baina, gainerakoan, Ibarrondoren idazkeraren eredu argia da *Azul y Llama*; trazu iheskorretan mugitzen diren tresna ezberdinek tinbre distiratsuak sortzen dituzte eta, horrela, Oñatik konpositorearen identitate-zeinu diren dinamismo eta energia izugarriak azaleratzen dira.

Hurrengo obra erabateko estreinaldia da: BBVA Fundazioak Brais Nóvoa Loira konpositoreari egindako enkar-gua. Iturregi bezalaxe, Nóvoa Loira Musikeneko ikasle ohia da eta urrutira iristen ari da azken urteotan; izan ere, zenbait lehiaketa irabazi ditu: FIDAHren hirugarren edizioa eta PluralEnsemblek 2017an Konpositore Gazteentzat antolatutako Deialdia, besteak beste. Musikenetik igaro ondoren, Nóvoa Loirak Konposizio Elektroakustikoan masterra egin zuen Madrilgo Katarina Gurska Zentroan, eta, hain zuzen ere, musika elektronikoak definitzen du neurri handi batean bere pentsamendu musikala, baita gaur lehendabizikoz entzungo dugun obra honen izaera ere.

Hilando reflejos 2017an *Reflejos rotos* obrarekin abiatutako konposizio-zikloaren bigarren lana da, etorkizunengan kamera-talde ezberdinen eskutik jarraipena izango duena. Horiek guztiak batzen dituen kontzeptua «islak» dira, eta, zehatzago, nola eraman fenomeno optiko hori soinu-esparrura. Nóvoa Loira bi alderditatik hurbiltzen zaio

«isla»ren ideiarri: «Hona hemen lehena: pertzepzioko eta, batik bat, memoriako espazio/denboraren ideia. Hau da, material musikal jakin baten gainean dugun denbora-pertzepzioan eta nola eragiten duen oroitzapenak material horien deribazioak (errepikapenak, bariazioak edo kontraste irekiak) partekatzen dituzten gertaera musikalen pertzepzioan. Ildo horretatik, konexio bat dago islaren ideiarene eta memoriaren artean, biek baitakarte errealtatearen pertzepzio ez zehatza; aitzitik, gainjartzen diren eta pertzepzio baldintzatzen duten elementu fisikoak (espazialak edo tenporalak) dauden errealtatea hautematea».

Konpositorearen hitzetan, «islen ideia interesgarria iruditu zait, bestalde, errealtatea "itxuraldatzen" duen elementuak direlako. Musikari dagokionez, hauxe da gakoa: argiak eta agerikoak —baina baita ez hain interesgarriak ere— izan zitezkeen materialak lausotzen, gaiztotzen, korapilatzen... dituzten metodoak erabiltzea. Funtsean, tinbrearen erabileran zentratzen dut neuk ideia hori». Lausotze hori gauzatzeko, Nóvoa Loirak eremu instrumentalerako egokitu ditu musika elektroakustikoan erabiltzen diren modulazio eta efektuak. Horrela, instrumentuetan ekite- eta emisio-moduak aldatuta aberasten du ondoriozko tinbrea, horretarako inspirazio-iturri hartuta lengoaia elektroakustikoaren berezko modulazio

eta filtroak. Konpositoreak ohartarazi duenez, baina, «horrekin ez ditut tresna akustikoetan soinu elektronikoak "imitatu" nahi». Edonola ere, lan egiteko modu horrek isla gehigarri bat ematen dio obraren osotasunari: elektronikaren nozioa alderdi instrumentalean.

Gaurko kontzertuaren azken zatian, XX. mendeko musikaren oinarrizko konposizio bat izango dugu entzungai. Ospea ez zaio iritsi publikoaren artean arrakasta handia lortu duelako, baizik eta gaur egun abangoardiako musikatzat dugunaren hastapenetako sorkuntza enblematiko bilakatu delako. *Pierrot Lunaire* ziklo liluragarriaz ari gara. Arnold Schönbergek idatzi zuen 1912an, bere aldi atonalaren une gorenean, eta Albert Girauden poemei buruzko hogeita bat abesti laburrek osatzen dute. Etapa horretan —1908 inguruan hasi zen eta 1920 inguruan amaitu, sistema dodekafonikoaren ezarpenarekin batera—, ezein konpositorek inoiz egin duen ahaleginik handienetakoa egin zuen Schönbergek. Azken batean, lehendabizikoz hautsi zuen erabat eta apropos sortzaile batek sistema tonalarekin, atonalismo librearen huts beldurgarrira jauzi egiteko —Europan, bederen; Charles Ivesek zenbait urte baitzeramatzan teknika horiekin eta beste batzuekin esperimentatzen Ameriketako Estatu Batuetan—. Horregatik, Schönbergen etapa horretako dozena erdi obrak (1909ko *Erwartung* bikainetik

1913-1916ko *Cuatro canciones orquestales* lanera) ikonotzat jotzen dira, hain zuzen ere etorkizunean sorkuntza musiken korrante askoren jarrera definituko zuen bilatzeko gogoaren ikonotzat.

Style and Idea estetika-gidaliburuan —lehen bertsioa 1950ekoa da— jasotako idazkietako batean, Schönbergek, bizitzako azken urteetan AEBetan erbesteratuta zegoela, gazteei zuzendutako printzipio-adierazpena egin zuen: «Nork bere buruari ezarri behar dizkion muga bakarrak bere talentuak ezarritakoak dira». Esaldi hori hunkigarria da, ukitu autobiografiko handia ezkutatzen baita axioma-itxura horren atzean, baita Arnold Schönberg benetan izan zen horren esentzia ere: talentu izugarria zuen konpositorea izan zen, talentu hori garatzeko milaka oztopo gainditu behar izan zuena. Bizitza osoan zehar, baina gaztaroan batez ere.

Hasteko, Schönbergek bereak eta bi egin behar izan zituen prestakuntza ia erabat autodidakta batekin; horrek, musikaren historian parerik ez duen konposizio-teknika eskuratzea oztopatu ez bazion ere, izugarri zaildu zion kontserbatorioetako prestakuntzan hain funtsezkoak diren harreman profesionalak sortzeko aukera. Izan ere, interpreteekin izan zituen harremanak oso arazotsuak izan ziren hasieran, neurri batean, bere musika nabarmen zaila zelako eta berak

nortasun gogorra zuelako, baina baita jatorri judua zuelako ere; hori oztopo nabarmena izan zen bere ibilbidean, antisemitismoak *in crescendo* zihoi-lako Austrian. Berez, lehendabiziko estreinaldietatik juduak izan ziren haren ongile nagusiak, baita etorkizunean bere aliatu fidelenak ere (Mahler, Rosé, Kolisch, Steueremann, Walter...).

Gaztaroan, Schönbergek, marxismoak liluratuta, sindikatu sozialdemokratekin bat egin zuen mende-aldaketako urteetan langileen abesbatzetako zuzendari zela aprobetxatuta. Orduan hasi zen, hain zuzen ere, Karl Lueger alkate sozialkristauaren —antisemita eta habsburgotarren aldekoa— agintaldia Vienan. Schönberg, gainera, harremanetan izan zen Vienako artista intelektual gazteekin; hiriko *establishment* kulturalak mesfidantzaz begiratzen zion talde progresista horri. Aurreiritzi ugari sortu ziren bere musikaren gainean, bere historial politiko horren ondorioz, zenbait aipamenetan irakur daitekeen bezala. Besteak beste, *Ganbera-sinfonia*, op. 9 lanaren 1907ko estreinaldiaren harira *Illustriertes Wiener Extrablatt* egunkarian argitaratutakoan: «Gauza bakarra dago aipatzeko: Schönberg jauna Vienan egin zen, musika betiereko eta ahaztezinaren hiriburuan. Zalaparta sortzeko modu plebeioenak ere hemen bertan egiteak ez du jada inor harritzen. Zarata demokrata basati eta arduragabeak

egiten dira, baina horrek ez du inor nahasten, oso argi dago musika zer den».

Kritika ez ezik, publikoa ere Schönbergen kontra zegoen. Bere musika-legatu izugarriaren bermea zela sinetsita, Vienako publikoak gustu kontserbadorea zuen musikan, eta Europako intransigentee-na zen. Bada, 1910. urte inguruan, musika garaikideko kontzertu orok kontrako jarrera eragiten zuen. Aipatutako estreinaldiko *1. ganbera-sinfoniaren* interpretazioa ez zen salbuespena izan; izan ere, butaken triki-trakak eta txistuak entzun ziren, eta izan zen nabarmenkeriaz aretotik irten zenik ere, Schönbergen ikasle zen Egon Welleszek deskribatu zuenez.

Parisen, esaterako, oso bestelakoa izango zatekeen dena Schönbergentzat. Hala eta guztiz ere, bihotzez maite zuen Vienako herentzia musikal hura, ironikoki, bere musika onartua izan zedin oztopo nagusia ere bazena. Schönbergekek eman zituen bi urrats handiak tradizio alemaniar handi horretakoa —horri zor zion bere musika ondarea— izatearen ezinbesteko emaitza ziren beretzat. Atonalismoaren kasuan, gero eta disonante eta kromatikoagoak ziren eta sistema tonalaren arauen esparruan zentzua galtzen hasiak ziren musiken anbiguotasuna konpontzeko modua izan zen. Dodekafonismoari dagokionez, arrisku handiz atzean utzitako tradizio alemaniarra itzultzeko ahalegin desesperatua izan zen bere sorkuntza,

konposizio-prozesua eutsiko zuten arau logiko berriak sortzeko bidean.

Igor Stravinsky, Diaghileven Ballet Errusiarrekin batera Berlinen zegoela baliatuta, *Pierrot Lunaire* obraren estreinaldira joan zen 1912ko abenduaren 8an. Urte asko igaro ziren egile errusiarrek hura aitortu baino lehen —modernismo musikalaren aitzindari gorenaz izateko bi konpositoreen arteko borrokak Schönberg 1951n hil zen arte iraun zuen—, baina Stravinskik bere «bizitzako konfrontazio profetikoa» kontsideratu zuen emanaldi hura, eta *Pierrot Lunaire*, berriz, «plexu solarra, bai eta xx. mendeko lehen musikaren adimena ere».

Sorkuntza harekin, parekorik ez duen unibertso musikal bat eratu zuen Schönbergekek. Albertine Zehme aktore eta abeslariak egin zion enkargu bat zela eta, *Lieder* erromantikoen ziklo handiak hartu zituen inspirazio-iturritzat, hala nola Schuberten *Winterreise* edo Schumannen *Dichterliebe*. Nolanahi ere, abestuz errezitatzeko modu bitxi horri (*Sprechstimme*) gehitu behar zaizkio Albert Girauden poemetakako ikuspen haluzinatua (Otto Erich Hartlebenen alemanezko itzulpena) eta hainbat erreferente musikal, kontrapuntu nahaspilatuenetik hasi eta kabareteko atrebentziaraino; horren guztiaren emaitza izan zen hogeita bat abestiz osatutako bilduma bat, pareko-

rik ez duena ordura arte (ez eta geroago ere) musika klasikoaren esparruan egindako guztian.

Schönbergekek garrantzia kendu nahi izan zien irudi beldurgarritz betetako Girauden poema aztoragarriei: «Batek irudika ditzake ipuinak koherentziarik gabeak baina ametsen moduko loturak dituztenak; besterik gabe eufonikoak diren poemak, hitz ederrez beteak baina esanahirik eta koherentziarik gabekoak. Nolanahi ere, ahapaldi ulergarri gutxi batzuk dira, elkarrekin zerikusirik ez duten gauzen zati. Horrelako egiazko poesiak, gehienez, esanahi alegoriko bat izan dezake, haren orokortasunean, bai eta zeharkako efektu bat ere, hala nola musika». Alegia, *Pierrot Lunaire* errepertorio atonalaren aintzidari mugarri ez ezik, aitzindaria izan zen surrealismoa soinuak lantzen dituen artera eramaten.

xx. mendeko funtsezko sorkuntza horren atariko gisa, eta estreinatu zenetik ehun urte igaro eta gero oraindik duen eraginaren seinale, *Pierrot Rewrite* proiektuaren esparruan hiru euskal konpositorek idatzitako hiru pieza berreskuratu ditu Bilbao Sinfoniettak. Musiques Nouvelles taldeak 2012an *Pierrot Lunaire* obraren estreinaldiaren mendeurrena zela-eta abiatutako ekimena da proiektu hori. Proiektu horretan, Schönbergekek erabili zituen Albert Girauden poemei musika jartzea

eskatu zitzaizen Europa guztiko konpositoreei, baina, oraingoan, jatorrizko bertsioa hartuta oinarritzat, hau da, frantsesezko bertsioa. Belgikan hasi zen proiektua, baina hurrengo urteetan beste herrialde batzuetara joan zen hedatzen, hala nola Poloniara, Txilera eta Euskal Herrira. Mikel Chamizo, Guillermo Lauzurika eta Hilario Extreman konpositoreek bizpahiru minutuko zenbait orri labur idatzi zituzten *Valse de Chopin*, *Supplique* eta *Nostalgie* poemenganean, non, bakoitza bere modura, harremanetan jardungo baita «plexu solar» horrekin, alegia, Schönbergen partitura originalarekin.

Mikel Chamizo

Bilbao Sinfonietta



Egungo musika testuinguru ezberdinetan jorrazteko gai da talde balioaniztun eta malgu hau, eta norabide argia dauka: bertsio koherente eta arriskatuen bitartez egungo kulturaren bihotzera iristea. Ibilbide luze eta proiektatua duten instrumentistek osatzen dute taldea, talde kementsu eta solido honen estrategia bermatuta.

Azken denboraldiko arrakasta handia Igor Stravinskyren *Soldadu baten istorioa* lana eszenaratzea izan da. Traspasos Kultur konpainia dramatikoarekin batera aritu dira, besteak beste antzoki hauetan: Castellóko Auditori i Palau de Congressos, Bilboko Euskalduna Jauregia eta Amurrioko, Aguraingo eta Areatzako antzokiak. Diziplina anitzeko esplorazioan murgilduta, musika antzerkiarekin lotu du taldeak, baita dantzarekin eta bideo-sorkuntzarekin ere, Circle of Trust eta Logela Multimedia konpainiekin batera. Brittenen eta Martinüren musika izan zen koreografia garaikideen eta bideo-proiektzioen oinarria, eta halaxe islatu zen Bilboko Musika-Música jaialdian eskainitako ikuskizunean.

Formatu txikiak ere ohikoak dira Bilbao Sinfoniettaren jardunean; Bilboko Guggenheim Museoaren XX. urteurre-

nean, Esteve Casanovaren estreinaldi batekin, eskainitako duoetatik sokalaukoteetara. Laukote formatuan, Naroa Intxausti sopranoarekin batera, Aribert Reimann konpositore alemaniarraren lanak interpretatu izan ditu, bere Schumannen edo Mendelssohnen piezetatik abiatutako soinu-eraikuntzak eskainiz, besteak beste, Basauriko antzokian, Bilboko Arriagan edota Lekeitioko Itxas Soinua Musikaldian.

Euskalduna Jauregia izan da Bilbao Sinfonietta maizen aritu den espazioa. *Music Has No Limits* ikuskizunaren bidez jasotako gonbidapenetik Rainer Hersch maisu ingeles handiaren zuzendaritzapean egindako kontzertura.

2019/20 denboraldiak proiektu handi eta pozgarri ugari biltzen ditu Bilbao Sinfoniettarentzat. Bilboko Arriaga Antzokiak talde dinamiko eta gazte honen aldeko apustua egin du bere ekoizpen propioetako bitan. Lehendabizikoan —antzokiko denboraldia irekiko du—, taldeak Manuel de Fallaren musika interpretatuko du Ángeles Blancas soprano ezagunarekin batera, *Los fantasmas del pasado* izeneko ekoizpenean. Konpositore cadiztarraren *El amor brujo* lanaren lehenengo bertsioa interpretatzeaz gain, Francisco Domínguezek, Bilbao

Sinfoniettarekin lan egiten duen konpositoreetako batek, *Siete canciones populares españolas* abesti-bildumaren orkestrazio berria idatzi du taldearentzat. Arriaga Antzokian eskainiko den bigarren proiektuak *Brecht se encuentra con Weill* du izena; Kurt Weillen *Mahagonny Songspiel* obra musikalean oinarritutako opera-ekoizpena da, eta 2020ko maiatzean izango da entzuteko aukera.

Iker Sanchez Silva



Bilbao Sinfoniettaren zuzendari artistikoa eta Gasteizko Ganbera Orkestraren musika-zuzendaria da. Orkestra prestigiotsuak zuzendu ditu, hala nola: Bilbao Orkestra Sinfonikoa, Bartzelona eta Kataluniako Orkestra Sinfoniko Nazionala, Euskadiko Orkestra Sinfonikoa, Asturias Printzerriko Orkestra Sinfonikoa, Tenerifeko Orkestra Sinfonikoa, Orquestra Sinfónica do Porto Casa da Música, Orchestre Régional Bayonne-Côte Basque, Iruña Hiria Orkestra, Berlingo Concentus Alius, Oviedoko Orkestra Sinfonikoa eta Berlin-go Humboldt Unibertsitateko Orkestra.

Lan berri ugari estreinatu ditu: opera bat, kantata bat eta orkestrarako eta instrumentu-talderako zenbait lan, adibidez. Zenbait talde zuzentzeko gonbidapena ere jaso du; besteak beste, hauek: Salamancako SMASH ensemble, Bilboko Kabos Ensemble, Londreseko Cre.Art Project, Madrildo Ensemble Residencias, Baionako Ensemble Vocal ORBCB, Gasteizko TI-04 edo Donostiako Krater Ensemble; eta horiekin emanaldiak eskaini ditu Italian, Frantzian, Alemanian, Finlandian, Venezuelan, Kolonbian eta Portugalen.

Eszenako musikari dagokionez, hauek zuzendu ditu, batzuk aipatzearen: Mozarten *Txirula Magikoa*, Donizettiren

L'elisir d'amore, Rotaren *Lo scoiattolo in gamba* eta Guridiren *El caserío*. Denboraldi berri honetan, obra handiak zuzenduko ditu, besteak beste: Fallaren *El amor brujo*, Schönbergen *Pierrot Lunaire*, Brittenen *Kedar-garbitzaile txikia* edo Mozarten *Don Giovanni*.

2006. urtean, bi denboraldiz Bilbao Orkestra Sinfonikoaren zuzendari laguntzaile izateko lehiaketa irabazi zuen. Horrek erabat irauli eta piztu zuen bere ibilbidea; izan ere, maisu eta solista handiekin lan egiteaz gain, BOS zuzendu zuen behin baino gehiagotan.

Trebatzen aritu zen garaian, Peter Eötvös, Zsolt Nagy eta Jesús López Cobos izan zituen maisu. Prestakuntzaurte horietan, zuzendari laguntzaile gisa aritzeko aukera ere izan zuen orkestrazuzendari handiekin: Raymond Leppard, Rafael Frühbeck de Burgos, Juanjo Mena, Vasily Petrenko, Pablo González eta Michail Jurowski. Eta horiekin guztiekin, orkestra ugaritan aritzeko aukera izan zuen: Boston Symphony Orchestra, Los Angeles Philharmonic, Orchestre Philharmonique du Luxembourg edo Royal Liverpool Philharmonic Orchestra.

Zenbait grabazio egin ditu, besteak beste, Bilboko, Euskadiko eta Portoko

orkestra sinfonikoekin, baita zenbait talde instrumentalekin ere: esaterako, Verso zigiluarentzat Ensemble Residencias taldearekin, Krater Ensemble-rekin eta Sigma Projectekin. Laster, Bilbao Orkestra Sinfonikoarekin eta Bilboko Koral Elkartearekin zenbait operatako lehena grabatuko du IBS Classical zigiluarentzat.

Elisa di Prieto



Sevillan jaio zen eta bertan ikasi zuen Arte Dramatikoa. Ondoren, Madrilera mugitu zen; han, opera ezagutu zuen Elena Muñoz Valdelomarren eskutik, eta Purcellen *Dido eta Eneas* interpretatzea lortu zuen. Garai horretan, dantza-eskolak jaso zituen SCAENA Arte Eszenikoen Goi-mailako Ikastegian, eta operara aplikatutako eszenakoak, berriz, Alberto de Miguelen eskutik.

Geroago, musikako goi-mailako gradua ikasi zuen Musikenen, Maite Arruabarrenarekin. Urte horietan, musika garaikidearen gaineko prestakuntza sakondu zuen Luganon (Suitza) Luisa Castellanirekin eta Arturo Tamayorekin, eta Schönbergen *Pierrot Lunaire* interpretatzera iritsi zen. Azken horrekin, hizpide dugun generoan trebatzen jarraitu zuen, besteak beste, Fallaren *Psyché* edo Boulezen *Improvisation sur Mallarmé* lanekin.

Nelly Miricioiu, María Bayo, Ana Luisa Chova, Susanne Elmark, Measha Brueggergosman edo David Mason izan ditu maisu, baita Maciej Pikulski, Ricardo Estrada edo Rubén Fernández Aguirre erreperoristak ere.

Alderdi eszenikoari dagokionez, soprano honek genero guztiak jorratzen ditu:

oratorioa (Mozarten *Requiema* edo Dvořáken *Te Deuma*), zarzuela (Jesús Guridiren *El caserío*, Amadeo Vivesen *Bohemios* eta Jacinto Guerreroaren *Los gaviñanes*), opera (Mozarten *Don Giovanni* eta *Xirula magikoa*, Pucciniren *La bohème* edo *Usandizagaren Las golondrinas*). *Las golondrinas* ETBk grabatu zuen, eta Gasteizko Principal Antzokian, Donostiako Victoria Eugenia Antzokian eta Bilboko Euskalduna Jauregian interpretatu zen. Etorkizunean egingo dituen proiektuen artean, Verdiren *La traviata* operan Violetta ren rola abestuko du lehenengoz.

Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin, Errioxako Orkestra Sinfonikoarekin eta EIO Orkestrarekin kolaboratu du, baita Bilboko eta Gasteizko udal musikabandekin ere. Antzoki askotan lan egin du, hala nola, Euskalduna Jauregian (Bilbo), Kursaal (Donostia), Principal Antzokian (Gasteiz), Riojaforum (Logroño) edo Teatro dei Ginnasin (Erroma). Musika-jaialdietan ere parte hartu ohi du, Musika Hamabostaldian edo Donostiako Musika Sakratuaren Zikloan, kasu.

Irungo Luis Mariano Kantu Lehiaketaren XIII. edizioan finalista izan zen 2016. urtean.



Hurrengo kontzertuak

Musika Garaikideko X. Kontzertua Zikloa BBVA Fundazioa

BBVA Fundazioa • San Nikolas plaza, 4. Bilbao • 19:30 h

2019 | 11 | 12

Folium Fugit (saxofoi laukotea)

Friedrich Cerha, José Luis Turina, Gabriel Erkoreka, Franco Donatoni eta Dmitri Shostakóvich-en lanak

2019 | 11 | 26

Duo Lallement–Marques (gitarra duoa)

Helmut Lachenmann, Brian Ferneyhough, Félix Ibarondo, Mark Andre, Sofía Martínez eta Isaac Albéniz-en lanak

2019 | 12 | 17

Ensemble Sonido Extremo

Jordi Francés (zuzendaria)

Mauro Lanza, Elena Mendoza, Hèctor Parra, José Río-Pareja, Inés Badalo eta Núria Giménez Comas*-en lanak (* BBVA Fundazioaren enkargua)

2020 | 01 | 14

Cuarteto Signum

Thomas Adès, Konstantia Gourzi, Gabriel Erkoreka, Kevin Volans eta Arvo Pärt-en lanak

2020 | 02 | 11

KEA Ahots Taldea

Enrique Azurza (zuzendaria)

Luis de Pabloren *Zurezko Olerkia* (bere 90. urteurrenaren omenaldiz)

2020 | 03 | 10

United Instruments of Lucilin

Tristan Murail, Claude Lenner, Clara Olivares, Israel López Estelche, Julián Ávila, Fausto Romitelli eta Helmut Lachenmann-en lanak

2020 | 03 | 31

Trio Catch

Isabel Mundry, Gérard Pesson, Dai Fujikura, Mikel Urquiza eta Irene Galindo Quero-ren lanak

2020 | 04 | 21

Alberto Rosado (pianoa eta elektronika)

Iñaki Estrada, Aurélio Edler-Copes, Manuel Martínez Burgos, Raquel García-Tomás, Gustavo Díaz-Jerez, Carlos D. Perales eta Jonathan Harvey-ren lanak

2020 | 05 | 5

Trio Accanto

Georges Aperghis, Johannes Schöllhorn, Ramon Lazkano eta Mikel Urquiza-ren lanak

Zikloz kanpoko kontzertua

BBVA Fundazioa • San Nikolas plaza, 4. Bilbao • 19:30 h

2020 | 03 | 5

Darío Martín (pianoa)

Enrique Granados, Heitor Villa-Lobos, Isaac Albéniz, Ernesto Lecuona eta Alberto Ginastera-ren lanak

